

## **ANTROPOLOGIA MEDIKOA**

### **Sindrome kulturalak**

**Gaiak Argitaletxea**

**Idazlea: Eli Astiasaran**

**Webgunea: [www.gaiak.net](http://www.gaiak.net)**

**2013/12/08**

Medikuntza-antropologia gizarte- eta kultura-antropologiaren azpieremua da. Gaixotasuna, osasuna eta medikuntza-sistema desberdinen dimentsio sozialak eta kulturalak ikertzen ditu.

Biomedikuntza, mendebaldeko medikuntza edo medikuntza zientifiko izenaz ere ezaguna, gizarte modernoan nagusi den sistema da, mundu osora hedatzen ari dena. Sistema horrek, zientzia klasikoa izaki, hainbat oposiziotatik abiatuta aztertzen du errealitatea: gorputza/gogamena, norbanakoa/gizartea, gaixotasuna/osasuna, natura/kultura... eta banatuta ikertzen ditu. Horrela, gorputza ere gainerako giza dimentsioetatik (soziala, mentala, afektiboa eta espirituala) isolatzen du. Era berean, biomedikuntzaren barruan, giza gorputzaren ikerketa geroz eta txikiagoak diren partetan zatikatu da, eta espezializazioak sortu dira (neurologia, hematologia, kardiologia...).

Biomedikuntza ezaugarritzen duen determinismo biologikoak prozesu biologikoak lehenesten dituen hierarkia bat ezartzen du. Ondoren, jokabide psikologikoak eta indibidualak aztertzen dira, eta azkenik, subjektuaren ingurunearen nondik norakoak hartzen dira kontuan, maila diskurtsiboan behinik behin.

Medikuntza tradizional edo herrikoiek, talde kultural edo jakin baten medikuntza-sistemek, aldiz, gaixoari arreta egiterakoan, aintzat hartzen dituzte ingurune naturala, soziala eta kulturala. Ikuspegi globalagoa izanik, sistema horien arabera, maila fisikoa bizitza espiritualaren euskarria da eta gizakia eta bere ingurunearen arteko harremana azaltzen du.

Mendebaldeko medikuntza nagusitu den eredia izan arren, bere mugak dauzka eta zenbait eremutatik jaso ditu kritikak. Mediku profesionalak giza gorputzaren jabe egitearekin batera, herri-jakintzan eta esperientzia subjektiboetan oinarritutako ezagutzak gutxietsi egin dituzte. Hainbat ikerketa etnografikoren ondorioek biomedikuntzaren hutsuneak nabarmendu dituzte, eta sexua, generoa, maila sozioekonomikoa, bizipen pertsonalak eta oro har aniztasuna bezalako aldagaiak medikuntzaren praktikan kontuan hartzeko eskatu dute. Bestalde, nahiko zabaldurik dagoen ustearen arabera, biomedikuntza sistema kapitalistaren eta interes ekonomiko jakinen mende dago eta medikuntzaren arloko ikerketak interes horiek baldintzatzen dituzte. Horrek guztiak sistema hori eta bere neutraltasuna zalantzan jartzen ditu.

Kritika eta muga horietako batzuk agerian jarri dituzte azken hamarkadetako migrazio-mugimenduek. Beste herrialdeetatik etorritakoek kulturari lotutako arazoak edo gaitzak jarri dituzte osasun-sistemaren mahai gainean.

Kontzeptu horren inguruan adostasunik ez dagoen arren, medikuntza-antropologian eta psikiatriaren arloan “kultura-sindrome” terminoa erabiltzen da gizarte edo kultura zehatz bati eragiten dioten gaixotasun edo sindrome psikosomatikoak deskribatzeko. Gaitz horiek kultura edo talde jakin horiei soilik eragiten diete. Bertakoek ondo ezagutzen dituzte horien sintomak eta tratamenduak. Halaber, beste kulturetan

ezezaguna izaten dira askotan eta, gainera, ez dute kausa kimiko edota organiko frogaturik.

Gurean nagusi den medikuntza- eta kultura-eredutik ezin azalduzkoak diren gaixotasunak arrotzat hartzen dituzte sendagileek. Ikuspegi biologizista huts batetik ulertu eta azaldu ezin daitezkeenez, ezin zaie tratamendu egokirik eman. Gaixoa, inork ulertzen ez diolakoan, bere minen eta beldurren aurrean babesik gabe geratzen da. Beraz, osasun-sistemak huts egiten du kasu horiekin topatzen denean.

Zein dira baina ezezagunak zaizkigun kulturari lotutako sindrome horiek? Koroa, Asiako hego-ekialdean ematen da eta zakila desagertzeraino txikitzen ari delako ustean datza. Amoka errespetu falta bat jasan ostean bat-bateko jokabide hiltzaile edo suntsitzailea da, ondoren amnesia, nekea eta portaera auto-suntsitzailea ekartzen dituen. Sustoa, arimaren galera izenez ere ezaguna, Latinoamerikako populazioetan da ohikoa. Galdutako espermaren sindromea duenak pixa egiterakoan edo lo dagoenean semena galtzen duela uste du eta ahul edo gaixorik sentitzen da. Gure gizartean oraindik arrotzak izan arren, horietako batzuk gure herrietako osasun-zentroetara iritsi dira.

Desoreka eta gaitz horiek mendebaldekoak ez diren kulturei atxikitzen zaizkie. Hala ere, mendebaldean ere baditugu nahasmendu kultural propioak. Begizkoa, elikadura-jokaerek sortutako trastornoak, anorexia adibidez, et neke kronikoa gurean errotutako eta kulturari hertsiki lotutako gaitzak dira.

Nahasmendu transkulturalak, beraz, ezin dira interpretatu biomedikuntzako profesionalek erabiltzen dituzten betaurrekoen bitartez. Medikuntzaren eta psikiatriaren arloetan, sindrome kulturalak erronka bat dira berea ez den kultura batekin negoziatzera baitaramatzate. Ondoz baten aurrean daudela onartzen dute medikuek, baina arrotza zaien ondoz hori medikuntza naturalarekin tratatu ohi da askotan. Sendagileek, beraz, ezin dute behaketa fisiko eta ebidentzia organikoetara mugatu. Eztabaida kulturalaren alorrera sartzea beharrezkoa da. Izan ere, gaixotasunak ez dira gertaera isolatuak, eta, ondorioz, ingurune horiek ulertzeko giltza ere bada medikuntza-antropologiaren ikuspegitik.

## **BA AL ZENEKIEN?**

- Kultura desberdinekin harremanetan jarri eta beste lekuetako jakintzek gurean tokia egin ahala, osasunari lotutako hainbat eredu hedatu dira gure gizartean. Horrela, medikuntza tradizional edo herrikoiari lotutako aukerak geroz eta ugariagoak dira eta indarra hartu dute: medikuntza txinatarrak, ayurveda, yoga, medikuntza afrikarra, akupuntura... Ikerketen arabera, mendebaldeko herrietan, sendagai tradizional, osagarri edo alternatibo deritzen erabilera gora doa. Esaterako, medikuntza tradizionalarekin harremana izan dute australiarren % 48k, kanadarren % 70ek eta frantziarren % 49k.
- Herritarrek medikuntza tradizionala, nagusiki, hainbat min eta gaixotasun kroniko tratatu edo aurre hartzeko erabiltzen dute, bai eta bizi-kalitatea hobetzeko ere.
- Alemanian, minerako kliniken % 70ek akupuntura erabiltzen dute; AEBn, % 90ek.